



GAZTELUPEKO
HOTSAK
WWW.HOTSAK.COM



Errabal, 23
20590 SORALUZE
tel. +34 943 753 016
tel. +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com

Maite Larburu

Hezurren azpian

2019 GH-284 CD

Josh Cheatham estatubatuarrarekin Neighbor osatuz ezagutu genuen Maite Larburu (Hernani, Gipuzkoa, 1979) duela sei urte inguru. Amsterdamen bizitokia zuen musikari bikoteak ustekabe ederra eman zigan bere lehen diskoarekin, *Ura patrikan* (GH, 2013). Kritikari eta musika zale asko limurtu zuten lan harekin. “Ez dirudi lehen diskoa. Bizipoza eta freskotasuna baditu lehen diskoarenak, baina lehen diskoek ohi duten urduritasunaren eta dena erakutsi nahiaren izpirik ez”, nabarmendu zuen Harkaitz Cano idazleak disko haren harira. Entzuleen harridura areago handitzen zuen Larburu zein Cheatham musika eremu profesionalak kantugintzarekin zerikusirik ez duela jakiteak: antzinako musikan adituak dira biak ala biak, biolin jotzailea da Larburu eta viola da gamba eta kontrabaxua jotzen ditu Cheathamek. Neighborren azalberritu egiten dira bi musikariak eta pop, folk edota blues kutsuko abestien konpositore eta instrumentu askoren jotzaile bihurtzen dira. Bigarren diskoa, *Hau* (GH, 2016), Amsterdam eta Euskal Herriaren artean sortu zuen bikoteak, eta eremu arrikusgarriagoetan murgildu zen, instrumentu ugari erabiliz eta esperimentazioa urrunago eramanez, baina Neighborren nortasunari uko egin gabe: herri musika ureztatzen duten iturri anitzetatik edaten duen unibertso musikala.

Azken urteetan Herbehereetako bizilekua utzi eta Euskal Herrira itzuli da Larburu, eta horrek zaildu egin du Josh Cheathamekin elkarlanean jarraitzea. Hortaz, Neighborren hirugarren diskoan pentsatuz sortutako abestiak bakarkako bere lehen diskorako erabiltzea erabaki zuen Larburuk. Logikoa da hortaz, eta zorionekoa noski, entzuleak Neighborren lanekin loturak antzematea *Hezurren azpian* honetan —Larburu zen bikotearen kantuen egilea—, baina badira ezberdintasunak ere. Biolinak hartu duen garrantzia da horietako bat. Bitxia bada ere, Larburuk gehien menderatzen duen tresnak leku apala betetzen zuen Neighborren diskoetan, baina oraingoan Maite Larburu kanta egilea eta Maite Larburu biolin jotzailea batu egin dira eta zenbait kanta tresna horretatik sortu dira. Gitarra elektrikoa, gitarra klasikoa eta xilofoia ere jo ditu Larburuk diskoan, abesteaz gain; Neighborren bigarren diskoan kolaboratu zuen Carlos Taroncher klarinetistak ere parte hartu du zenbait abestitan, eta Aida Torres eta Beñat Iturrioz perkusioekin aritu dira. Lau kanturen hitzetan Harkaitz Canoren laguntza izan du Larburuk.

Musikari ogibidea dela-eta Larburuk nomadatzat du bere burua, baina disko hau oso lotuta dago jaioterrira itzultzearekin. Horren seinale da abesti guztiak euskaraz izateko hautua, Neighborren gaztelaniaz eta ingelesez ere abesteko zuen ohitura bazter utzita. Bidaia ageri da diskoko lehen abestian eta itzuleraren ideia irudikatzen duen ibaiaren inguruko kantuak ixten du lana. Ibaiaren metaforak balio du disko honetako hainbat abesti azaltzeko ere. Kortserik eta egitura zurrunik gabeko abestiak dira, sarri entzuleak jasotzen duen sentsazioa da hitzek egiten diotela bultza melodiari, aurreikusi ezin daitezkeen bideetatik eramanez abestiak, tarteka geldo eta bare, tarteka abiada biziagoa hartuz bihurgune artean. Alferrikakoa da etiketak jartzea edo estilo zehatzak aipatzea, Larburuk bere estilo propioa du, nahastezina.

Bertan murgil egin eta bere burua eramaten uztea baino ez zaio geratzen entzuleari. Larbururen egile nortasun bakanaren egiaztagiria aurkituko ditu nonahi: bere ahotsaren eta kantatzeko moduaren adierazkortasuna eta naturaltasuna, eta munduarekiko begirada propio hori, sentsibiltatea, umorea, samurtasuna, izaera jolastia eta aldarrikapena dosi perfektuetan nahasten dituzten hitz zoragarrietan islatzen dena.

Epe luzeko diskoak maite ditugu, patxadaz eta arretaz, entzunaldiz entzunaldi, ezagutu eta dastatu beharrekoak direnak, eta *Hezurren azpian* horietako bat da. “Kanta bidaia bat da”, abesten digu Larburuk diskoa hasi orduko. Bidaia zirrargarrienetan bezala, bide-orririk gabe abiatzea da onena, bideko esperientziak izan daitezen, kasu honetan abestiak, azken helmugara eramango zaituztenak.

Txintxua Filmsek Maiteren **Gona** jantzi du. Bideoklipa **Marian Fernández** eta **Asier Altunaren** zuzendaritzapean egin dute.

Sasi guztien gainetik eta hezur guztien azpitik, kezkak eta minak modu jostalarian aurkezten dizkigu Maite Larburuk, organiko eta biluz, ludiko bezain poetiko, egia hauskortasunaren eremuetan dagoen jakitun. Zaratari muzin, xuxurlari oles. Lantuari uko, umoreari toles. Nor da Maite Larburu? Sendabelar bat kantu egina. Kantu-kontalari eta ipuin-kantalari bat. Biolinaren birtuoso bat, birtuoso izatea gehiegi axola ez zaiona. Bere lema: “Esan ezti edo esan gordin, baina esan dotorre”. Surrealismo printzak eta zirrararen giltzak. Ereserikirik ironikoenak topatuko dituzu hemen eta berdin antiereserikirik serioenak. Baldosa bakarraren gainean dantzatzeko gai samurrak eta gauza minimoen zebrantza sakonak. Eta, batez ere, topatzen hain zaila den hori: nortasun bereizia eta ahots besterenezina. Ibaiak bezain luze doazen melodia horiek labur egiten zaizkigu, ez genuke nahi itsasoratu sekula. Abesti hipnotikoek leun-leun garamatzate herrestan, modurik naturalenean egiten dute aurrera. Doinu nabigagarriak izateak ez ditu, hala ere, aurreikusgarri bihurtzen; inoiz ez dakizu ibaiaren kurba eta meandroek noraino gidatuko zaituzten, zein izango den hurrengo desbideraketa hitzetan edo melodian, zein ertzetan bukatuko ote den bidaia.

Hezurren azpian zer dagoen jakin nahi? Ez duzu bisturirik beharko: disko hau jartzea nahikoa.

Harkaitz Cano